



Irudia: Unai Fernandez de Beño

Euskal hiriak

Ez *Euskal Hiria*, baizik eta Euskal hiriak. Azken K letra larriz idatzita. Plurala azpimarratu dadin. Euskal Herria gidatzen duen lurraldearen antolakuntza-eredua bakarra ez delako. Aurrenik, derrigorrez, gure herria –entelekia hori existitzen bada– administratiboki erabat zatikatuta dagoelako; baina baita kontzeptuz ere, bigarrenik, eredu pluralago bat haztatzeko garaiak heldu direla uste dugulako. Goitik beherako plangintzarekin batera behetik gorakoa ere, *bottom-up planning* delakoa, landu beharra dagoelako, tokian tokiko ezaugarriei muzin egin gabe. Lurralde-antolakuntza ez dadin bihurtu soilik eskala handiko azpiegiturak kosta ahala kosta kokatzeko diziplina hutsa.

Horregatik uztartu ditugu eskala ezberdineko arazoak, bai lurralde mailakoak bai hiri mailakoak, Euskal Herrian pil-pilean dauden hainbat kontu jorratuz: hiri-trinkotasuna, birdentsifikazioa, azpiegitura handien garrantzia eta eragina, krisialdira egokitutako plangintza mota berria, administrazio ezberdinen arteko kompetentzia-talka...

... eta, bereziki, lurraldearen antolakuntza-arte-bideak. Eskaintzen dizkiguten edukien eta planoen inguruan hausnartzeaz gain, eta eskala handiko alor horretan ere herritarren parte-hartzearen beharra aldarrikatzeaz gain, proposatzen duten lurralde-eredua bera aztertzea izan dugu helburu.

Gure eguneroko bizitzan, gure ongizatean, uste baino eragin handiagoa dute hausnarketagai ditugun gai hauek guztiek. Finean, horixe baita hirigintza eta lurralde-antolakuntzaren azken xedea: hobeto bizitzea.